


BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure produktua bezeroengana hurbiltzeko, bi era ezberdin nabarmenduko ditugu, hau da, konbinazio bat egitea erabaki dugu. Beseroekiko harreman pertsonala eta aurrez aurrekoa izango da baina automatizatua baita ere. Horretarako, webgune bat sortu eta denda fisiko bat edukitzea erabaki dugu.

- ❖ **Webgunearen bitartez:** Pertsona guztientzat interneten eskuragarri egongo da gure webgunea. Bertan eskaintza guztiak ikusi ahal izango dituzte eta baita erosi ere. Webgunearen barnean, beste funtzio bat izango dute eskuragarri makilaren altuera nolakoa izan behar den jakiteko pertsonaren ezaugarri fisikoen arabera. Hortaz gain, telefonoz deitzeko aukera izango dute zalantzaren bat izatekotan argitu ahal izateko. Webgunean aukera ona izan daiteke denda gertu ez duten pertsonentzako, edo denda fisikora joateko aukera ez dutenentzat.



- ❖ **Denda fisikoa:** Denda fisikoa ere egongo da. Bertan bezeroak produktuak erosi ahal izango dituzte eta baita frogatu ahal izango dute haien altuerarekin alderatzeko eta aldaketaren bat egin behar izatekotan, aldaketa hori nolakoa izan beharko den zehazteko. Bertan gure langileen laguntza izango dute, beraz zerbitzua askoz pertsonalagoa izango da. Aukera hau produktua guztiz egokia izateko aukera ona da gure bezeroak gudan konfiantza izateko, azkenean horrelako produktuak nahiko bereziak dira pertsona itsu batentzako bere egunerokoan erabili behar duen tresna bat delako.